


# ESPAINIAKO BIZTANLERIA

## BIZTANLERIAREN BILAKAERA:



Espainian 2011ko urtarrilaren 1ean egin zen azken zentsua. Urte hartan 47.190.494 biztanle zeuden, 2001eko zentsuan baino sei milioi gehiago.

**2008ko krisi ekonomikoaren** ondorioz, Espainiako biztanle asko **langabezia**n, lanik gabe, geratu zen. Honek eragin hauek izan zituen:

- Lanik ez zegoenez **inmigrante gutxiago etorri** ziren Espainiara.
- Lanik ez zegoenez bertako **gazte askok emigratu** egin zuten beste herrialde batzuetara lan bila, hau da, beste herrialde batzuetara joan ziren bizitzera.
- Espainian bizi ziren **inmigrante asko bere jaioterrietara itzultzen** da.

Gainera kontutan hartu behar da Espainiako **hazkundera negatiboa** dela. Jaiotze-tasa heriotza tasa baino txikiagoa da.

Eragin hauen ondorioz, azken urteetan Espainiako biztanleriak behera egin zuen.

Krisiaren amaierarekin batera azken urteetan biztanleriak berriz ere gora egin du iritsi diren migranteei esker. **2019ko uztailleko datuen arabera 47.100.396 biztanle zeuden Espainian.**

**2019ko datuak:**

|                                 |         |
|---------------------------------|---------|
| Jaiotzak:                       | 169.216 |
| Heriotzak:                      | 214.218 |
| Inmigratzaileak (etorritakoak): | 348.625 |
| Emigratzaileak (joandakoak):    | 139.528 |


## 1. ARIKETA: Esan EGIA ala GEZURRA den.

- |                                                                                                                         |      |         |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------|---------|
| • 2011era arte biztanleriak gora egin zuen.                                                                             | EGIA | GEZURRA |
| • Gaur egun Espainiak 40 milioi biztanle inguru ditu.                                                                   | EGIA | GEZURRA |
| • 2008ko krisiaren ondorioz biztanleriaren zati handi bat langabezian gelditu zen.                                      | EGIA | GEZURRA |
| • 2008ko krisiaren ondorioz gazte askok beste herrialde herrialde batzuetara alde egin behar izan zuen.                 | EGIA | GEZURRA |
| • Krisiaren amaierarekin batera biztanleriak gora egin du inmigrazioari esker.                                          | EGIA | GEZURRA |
| • 2019ko datuen arabera Espainiako berezko hazkundera positiboa da, hau da, jaiotza gehiago egon ziren heriotzak baino. | EGIA | GEZURRA |
| • 2019ko datuen arabera inmigratzaile kopurua emigratzaileena baino handiagoa da.                                       | EGIA | GEZURRA |


## BIZTANLERIAREN BANAKETA:


Espainian **berrogeita zazpi milioi pertsona** inguru bizi dira. Baina biztanle guztiak ez daude berdin banatuta ondorengo mapetan ikusten den bezala. Biztanle guztiak lurraldean berdin banatuko balira, azalerako kilometro koadroko 93 biztanle inguru egongo lirateke. Datu hori **biztanleria-dentsitatea** da.

Biztanleria dentsitatea = biztanle kopurua **zati** lekuaren azalera



Hau da kilometro karratua.  
93 Pertsona kilometro karratuko.





**2. ARIKETA:** Aurreko bi mapei begiratu ezkerre non esango zenuke bizi dela Espainiako biztanleriari gehiena?

- a) Kostaldean eta Madrilen.
- b) Espainiaren erdialdean.
- c) Biztanleria berdin banatuta dago.

**3. ARIKETA:** Zein dira Espainiako biztanlerik gehieneko 5 hiriak? Aukeratu. Zalantza baduzu interneten aurkitu.

|         |          |            |           |         |
|---------|----------|------------|-----------|---------|
| Madril  | Donostia | Bartzelona | Valentzia | Gasteiz |
| Sevilla | Iruñea   | Zaragoza   | Burgos    | Vigo    |

**4. ARIKETA:** Zenbat pertsona bizi dira hiri hauetan gutxi-gorabehera? Aurkitu informazioa interneten.

|            |           |     |           |
|------------|-----------|-----|-----------|
| Madril     | 3.200.000 | edo | 1.500.000 |
| Gasteiz    | 250.000   | edo | 500.000   |
| Bartzelona | 1.600.000 | edo | 3.000.000 |
| Bilbo      | 346.000   | edo | 500.000   |
| Valentzia  | 794.000   | edo | 1.000.000 |

**5. ARIKETA:** Espainiako Autonomiak ikasi behar dituzu! Praktikatu jolas honen bidez. Gutxienez 5 aldiz egin!!

## MIGRAZIO MUGIMENDUAK HISTORIAN

Historian zehar migrazio mugimendu handiak egon dira:

- Juduak kanporatzea; 1492an izan zen, Errege Katolikoen garaian. Erlijio-arrazoiengatik gertatu zen, eta 100 000 pertsona inguru kanporatu zituzten. Ikusi bideo hau garai hori nolakoa zen ulertzeko.
- 1492. urtean Kristobal Kolonek Amerika aurkitu zuen eta bertara emigrazio handia egon zen Espainiatik.
- Moriskoak (kristau bihurtutako musulmanak) kanporatzea; Filipe III.ak agindu zuen, 1609an. Guztira, 300 000 pertsona kanporatu zituzten.

## XX. menderako, Espainiako migrazioen historiak bi garai handi zituen:

- **1975era bitartekoa:**
  - **Landa exodoa:** Barruko emigrazioa eman zen eta nekazariak Madril, Katalunia eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiri industrializatuetera joan ziren industrian lan egitera.
  - **Atzerrirako emigrazioa:** lehenengo Amerikara eta gero, Europako mendebaldera.
- **1995etik Espainia immigrazio-herrialdea da. 2013an, Latinoamerikatik, Afrikatik eta Asiatik iritsitako bost milioi eta erdi atzerritar baino gehixeago bizi dira. Immigrante gehien hartzen dituzten autonomia-erkidegoak Katalunia, Madril, Andaluzia eta Valentzia dira.**
- **2008ko krisiak ere eragina izan zuen eta bertako gazte asko atzerrira joan zen lan egitera. Gainera inmigratzaileen kopurua ere jeitsi egin zen Espainian lanik ez zegoelako.**

## BIZTANLERIA ETA LANA

- **BIZTANLERIA AKTIBOA:** Lan egin dezaketan 16 urtetik gorako pertsonak osatzen dute. Bi talde daude:
  - **Lana dutenak.**
  - **Langabeak (lan bila dabiltzanak edo lanik gabe daudenak)**
- **BIZTANLERIA EZ-AKTIBOA:** arrazoiren batengatik lan egin ezin dutenak eta trukean dirurik jasotzen ez dutenak (ikasleek, familiak zaintzen dituzten pertsonak, urritasunen bategatik lan egin ezin dutenak, erretirodunek, boluntarioek, etab.) osatzen dute.

### 6. ARIKETA: Erantzun galdera hauei:

- **Zeri esaten diogu biztanleria aktiboa?**
  - a) Lan egin dezaketenei                      b) Lan egin ezin dutenei
- **Langabeak zer dira?**
  - a) Biztanleria aktiboa                      b) Biztanleria ez-aktiboa
- **Erretirodunak zer dira?**
  - a) Biztanleria aktiboa                      b) Biztanleria ez-aktiboa